

“ZERO ARRISKUA” PROIEKTUA, GALDATEGI TRADIZIONALETAN ALTZAIRU URTUA GALDATZEAN

Proiektuaren xedea: galdaketa-prozesuan zehar ekintza-erradioko edo arrisku-eremuko langileen presentzia ezabatzea.

Proiektuaren deskribapena: hainbat jarduketaren bidez eta inplikatu-tako eragileekin koordinatuta, lortu nahi da pertsona bakar batek ere katerik ez jasatea galdaketa prozesuan istripuren bat edo gorabeheraren bat gertatuz gero.

1. Hutseko zaliarekin iragazitako posizioen aurretiazko erregistroa.
2. Zaliaren betetzea labeen.
3. Zaliak molde bakoitzeko ontzien gainean duen posizionamendu sekuentzial erdiautomatikoak.



Egindako hobekuntzak:

- Beharrezkoak ez diren eragiketak identifikatzea eta ezabatzea.
- Metodo berritzaileak erabiltzea, arriskutik urrun dagoen ikusmena lortzeko
- Galdaketa-lanetarako zehaztutako beharrak betetzeko gai den garapen teknologikodun zubi-garabia jartzea.
- Stopper automatikoa duen zali-mota espezifikoa zehaztea.



Ezaugarri bereizgarriak:

- Arriskua jatorrian ezabatzea lortzen dugu, langileak arrisku-eremuan ez daudelako.
- Aurreko funtzio edo eskulan guztiak automatikoki gauzatu-ko dira.
- Datuak software bidez erregistratu eta kontrolatzea, automatik zuzenean.

Beste enpresa batzuetarako aplikagarritasuna eta irisgarritasuna:

- Sistema automatizatu mota hori edozein galdaketa-motara esporta daiteke.
- Stopper automatikodun zaliak arriskuak gutxitzen laguntzen du.
- Datuak softwaretik zuzenean kontrolatuta, izugarri optimizatzen da galdaldiko datuen kudeaketa.

Ezarri aurretik eta ondoren lortutako emaitzak:

AURRETIK:

- 5 pertsonak hartzen zuten parte galdaketan, guztiak zaliaren ekintza-erradioan.
- Galdaketa-lanak eskuz egiten ziren.

ONDOREN:

- INOR EZ dago zaliaren ekintza-erradioan.
- Eragiketa guztiak sistema automatikoen bidez egiten dira.

